



**Mediku talde xeibre bat kalean gora eta behera.**- Oihulari clown-en taldearen eskutik "Pronostiko erreserbatua" kale antzerkia eskaini zuten Okendo inguruetan jira eta buelta jendea errekonozitzen aritu ziren mediku xeibre batzuek. Ikuskizun umoretsua eskaini zuten herriko karrketan, bazterrak nahasten adituak diren lau pailazo/medikuak plazan gora eta behera ibili baitziren larunbata gauean, hala behar zutela uste zuten herritarrei errekonozimenduak, galderak eta mediku-azterketa zorrotzak eginez. Barre eta algarak eragiteaz haratago, Lasarte-Oriako gizon-emakumeek dituzten arazo ezberdinak plazaratzeko asmoa ere izan zuen obrak. Besteak beste, krisia, langabezia eta Realaren gisako gai potoloak, alopezia, tentsio baxua, buruko mina eta halako gaitz fisiko konkretuekin uztartu zituzten joko zoro eta umoretsuan eta leku berezia izan zuen sexualitateak. Mediku bata, estetoskopioa eta masajeak emateko gailuak hartuta Okendo inguruko terrazetan eserita patxada ederrean zeuden pertonekin txantxaka aritu ziren. Jendearen aldetik harrera ona izan zuen kale-ikuskizunak eta herritarren inplikazioa eskatzen zuen obra izanik, bat baino gehiagok primeran pasatu zuten lau mediku xeibreek esaten zietenari adi-adi jarrita.

### 3 EPAIKETA

#### Xirimiriko ordezkariak Auzitegi Nazionalera

Xirimiri elkarteko hainbat bazkidek agerraldia egin zuten Urriaren 17an Madrilan Auzitegi Nazionalan aurkezteko agindua jaso dutela jakitera emateko. "Herrikoen" makroepaiketara inputatu moduan joateko jakinarazpena da eta bazkideek epaiketa politikoa salatu dute.

### 4 KULTURA

#### Antzerkia, musika eta zinema, kalea girotzeko

Herritarrek gustura hartu dituzte udaleko Kultura sailak antolatutako kale ekintzak. Antzerki, kontzertu eta zinema emanaldietara jende asko gerturatu da tenperatura eta kalean egoteko giro paregabea lagun. Udara bukatu aurretik, hainbat ekintza izango dira oraindik ere.



### 5 GIZARTEA

#### GHK-k errauste plantaren eraikuntza eten du

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa erakundeak errauste plantaren obrak eten dituelaren berri eman zuen lehengo astean. Baimena jaso zuen jatorrizko proiektuaren eta "lizitatuaren" arteko desberdintasunak argudiatzen ditu, hain zuzen, zepak eta eskoriak tratatzeko plantan.

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 361080  
Tel./Faxa: 943 372521

**Bideo Lagunak TIEN 21**

Etxetresna elektrikoetan adituak

Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!

Me gusta

Plasma 42" PHILIPS 169€  
FullHd 100Hz

Plasma 42" PANASONIC 409€  
600Hz USB

Plasma 50" PANASONIC 529€  
600Hz

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

## Adituak dio



Ez gero niri  
adarrik jo!

**B**ando, bando, alkateak ez, neronek esangot.

Deabrua, Galtzagorri, Infernu-ko Patxi, Kapagorria, Satan, Tusuri, Demonio, Txerren, Mikolas, Matxingorri... ditut graziak. Eta sinestunak bazarete: Luzifer, Beelzebub, Satanas... Dei nazazue nahi bezala, baina neronek esangot: INFERNUKO SUAN KISKALIKO DIRA. Ez ditu ez ezerk ez inork libratuko, ezta santatzat duzuen gatzik gabeko horrek ere. Baten batek ordaindu beharko du desmasia hau, eta ez da herria izango.

Ezagutzen nauzue, zuen ezker sorbaldatik belarrira hitz egiten duen horixe naiz. Pastel kolorez janzten den eskuin sorbaldako santujale-inuzente-koitadua kerubinak ferratzera bidali dut. "Bekatutik libre dagoenak bota dezala lehenengo harria" esaten ez du ba inozo alaeanak! Botako dizkiegu lehena, bigarrena eta hirugarrena; harrika txikituko ditugu akusatutak.

Hemen ez dago errugabetasun printzipiorik, prebarikatuko dugu agrabante guztiak erabilia: aurrez pentsaturik, arriskurik hartu gabe eta gauekotasunarekin. Ez dugu epaiketa justurik nahi. Herria da epaile, epaimahai eta akusatzaile. Bai, juizioa maneatuta dago. Bai, arbitroak etxekoen alde egingo du, eta debalde gainera. Bai, pagaburuak behar ditugu eta behingoagatik ez dira ez krisia ez euria izango.

Begia begi truk eta hortza hortz truk, haginak urrezkoak edota inplantatuak badira ere. Horixe da legea. Orain arte bapoz bizi izan dira herriaren kontura; ba amaitu zaie kontua.

Lapikoak bor-bor egiten du. Labea bero dago apopiloen zain. Arranparrilla prest dut. Haragi eta ile erre usaina aditzen ditut dagoeneko.

## Zorion agurrak



**Haritz**

Urte bat gehio, oraindik gaztea zea, datorren festetan ingodegu biok parranda, ondo pasa sure familian partetik



**Oihane**

Zorionak printzesa zure 5garren urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoen eta lagun partetik!



**Ambar**

Zorionak zure guraso eta anaiaren partetik! Ondo pasa zure bederatzigarren uda



**Alex**

Zorionak 6. urtebetetzean. Muxu handi bat zure familia osoaren partetik!!



**Jon**

Zorionak Jon!!! 6 muxu pottolo familieren partetik



**Ane**

Mila muxu etxeko altxorrari familiaren partetik!



**Bakartxo**

Zorionak herriko Zorionak abeslari finenari! Jarraitu horrela! Muxu bat denon partetik.



**Oihan**

Zorionak bihurri! Txokolatezko muxu handi bat zure lehen urtebetetzean! Naroa, amatxo eta aita-xoreen partetik.



**Malen eta Izar**

Zorionak bikote zuen lehenengo eta 7. Urtebetetzean. Txokolatezko muxu pila familia guztien partetik.



**Izaro**

Zorionak pottoli ondo pasa zure 5. Urtebetetzean. Aitaxo eta amaxoren partetik.

## Azoka txikia

## Eskaintza inmobiliarioak

- Bi logela alokatzen dira pisu partekatuan. Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona arduratsuek eta ez erretzailleak bilatzen dira. Hilabetero 230 euro eta 240 euroa gehi gastuak. Harremanetarako 686 93 27 14
- Garajea alokatzen da erdigunean: itxia bi autorentzat. Harremanetarako, 686 674 552
- Landetan Leonen 6 plazako mobilhome bat alokatzen da oso prezio onean. 660 057 667
- Landetan, Vieux Boucau-n dagoen "Le Boucanier" urbanizazioan, lau laguntzako estudioa alokatzen dugu, Uztaillak 20tik Abuztuak 3 bitartean. Astea, 600 euro. Harremanetarako telefonoa 626614111
- Garajea alokatzen da Atsobakarren, Garai-koetxea ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. Harremanetarako zenbakiak: 943 36 54 76 / 659 021 945

## Salerosketak

- Kotxea salgai. Mercedes Vito 4000 eurotan. (Ohea du) Harremanetarako, 630 032 779.

## Lan-eskaintza

- Lasarteko denda baterako autonomia eskatzen da. Eguneroko lana. Arduratsua eta emakume heldua bada hobe. Interesatuak bidali kurrikuluma apdo 56 Donosti.

## Lan-eskariak

- Etxeko lanak egiteko, edadeko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanetan aritzeko pertsona bat eskaintzen da. Harremanetarako telefonoa, 620 019 449.

## Bestelakoak

- Haur-pultsera bat aurkitu da Hipodromo etorbidean. Norbaiti falta bazaio dei dezala 654 167 077 zenbakira.

## Iruditan



Deabrua du urtero hutsik egin ezin duen pertsonaia parodian, aurten ere bertan izango da. Tomas Hernandez

## Santa Ana parodia ostiralean

Ohitura bihurtu denez Santa Ana parodiaz gozatu ahal izango da ostiralean Okendo plazan. Dirudienez 1940-50 hamarkadan berpiztu zuten antzerki berezi hau. 1946. urtetik egin dela esan ohi da baina hau iragartzen zuen lehen kartela 1952. urteko parodiarena da. Aintzinan herriaren parodia bat egiten zela entzunda, herritarrek Gure Etxeako Manuel Sagardiak bulztatuta, hau berreskuratzeari ekin zioten eta egun herriaren egun handietako bat da.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



LASARTE ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



## Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

## Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

## Aleak zenbakiko: 7800

## txintxarri

## Eredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,  
Maider Azurmendi, Jon Altuna E.  
txintxarri@txintxarri.info

## Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

## Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Jone M.  
Hernandez, Oihana Salazar,  
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

## Informatikoa:

Xabier Amadoz

AUZIA

# Xirimiri herrikoen epaiketetan

*Elkarteko ordezkariak deitu ditu Auzitegi Nazionalak*

Xirimiri elkarteko hainbat bazkidek agerraldia egin zuten Urriaren 17an Madrilen Auzitegi Nazionalan aurkezteko agindua jaso dutela jakitera emateko. Uztailaren 13an elkartera iritsi zen "Herrikoen" makroepaiketara inputatu moduan joateko jakinarazpena. Bazkideek epaiketara politikoa salatu dute.



Xirimirin hainbat herritar bildu zen herriko tabernen epaiketara salatzeko.

## Maidar AZURMENDI

Elkartea Lasarte-Oriako herritarrek duela 24 urte sortu eta orain artean herritar askoren topalekua izan dela gogoratu dute. "Afarriak, musika, ekitaldi kulturalak, erakusketak, bilerak, hitzaldiak... egin dira bertan. Zein ez da Xirimirin izan? Elkarteak beti ateak irekiak izan ditu nahi izan duen guztiarentzat".

Xirimiriko bazkideentzat ulergaitza da "guztia ETA da" premisapean jasaten ari garen eraso hau". Azpimarratu zuten "garbi dago epaiketara politikoko berri bat dela, etsaiaren zigor zuzenbidearen printzipioak aplikatuta, ideologia jakin bateko kideak eta horien aldekoak epaitu nahi dituzte".

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean eta Espainiako Konstituzioan jasotzen diren oinarriko printzipio demokratikoak eta funtsezko esku-

bideak urratzen ditu auziak Xirimiri elkarteko kideentzat.

Azken urteetako bidea ikusita, "ulertezina eta zentzugabea da horrelako jarrera". Euskal gizarte bake eta normalizazio politikorako lanean ari den bitartean Madrildik kontrako bidea hartu dutela salatu dute eta gatazkaren konponbiderako prozesua oztzatzen ari direla.

"Euskal gizartearen aukera, ideia zein ikuspegi aniztasuna eta oinarri demokratikoen bidez elkarbizitza esparruak eraiki nahi dituzten herritar guztiak zuzendutako eraso da 35/02 auzi politikoa".

Xirimiritik eskatu dute, "herritarrei dagokigu epaiketara politikoko gehiago egin ez dadin ozen aldarrikatzea instrukzio bidegabeetan oinarritutako epaiketara guztiak artxiba daitezela, etsaiaren zigor zuzenbidea desagertu dadila, aniztasun politikoa eta elkartzeko, adierazpen zein

askatasun politikorako eskubi-deak baldintza gabe errespetatzea eta elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoa ezartzen lagun dezatela". Xirimirik epaiketaren aurka irailetik aurrera ekimenak egingo dituela aurreratutako zuten.

## Epaiketara

35/02 makrosumarioa 2002ko martxoan abiatu zuen Baltasar Garzonek. Apirilean 11 lagun abxilotu zituen polizia Herriko Tabernen bitartez ETA finantzatzeko plan bat egitea leporatuta eta 75 herriko taberna itxi zituzten.

Ahozko epaiketara urriaren 17an hasiko da Joseba Alvarezen deklarazioarekin eta epaileak azaroaren 18ra bitartean entzuzko dituzte lekukoak.

Herriko taberna guztien arduradunak deklaratu behar dute eta honek epaiketara luzatzea espero da otsailera arte.



## GIZARTEA

### Ekintzak betetako uda Atsobakarren

Lasarte-Oriako Atsobakar zaharren egoitzean "Gurekin gozatu uda berezi honetan" ekimena dute martxan.

Musika kontzertua, familieekin jaialdia... denetarik antolatu dute uztaileko lehen aste hauetan.

Lehenengo asteazkenean, esate baterako, egoiliarak, senitatekoak, Nagusilan elkarteko boluntarioak eta zahar etxeko langile batzuk, guztira 36 pertsona, bazkaria izan zuten Zalduta jatetxean. Ostegunean, berriz, Gurutze Gorriko "Goazen hondartzara" egitasmoari esker, lau egoilarrek Kontxako hondartzara joateko aukera izan zuten.

Eta paseo poteoa ere egingo dutela iragarri dute zahar etxeko arduradunak, "Atsobakar auzotik paseotxo eman eta bidea zerbait hartuko dugu".

## UDALBATZARRA

### Gai ekonomikoak aztergai

Ostiralean ez ohiko Udalbatzarra izan zen eta bi gai ekonomiko izan ziren mahai gainean.

Lehenengo gaia 2013 ekitaldian kredituak aldaketan berri ematea izan zen.

Bigarrena, berriz, kredituen gehigarriak aldatzeko proposamena izan zen eta EAJ, Bildu, LOHP eta Marisa Zubiriren bozari esker aurrera ateratu zen. PSE-EE eta PP abstenitu ziren.

Honen bitartez, besteak beste, merkataritza sailean herriko komertzioak indartzeko zerbitzua jarriko da martxan, bestetik Gazteleku kontzertuak emateko beharrezkoa den instalazio elektrikoak egingo da eta herriko semaforoetan itsuentzako sistema berri bat jarriko da, urrutiko aginte batek seinale akustikoa jarriko luke martxan.

## BIYAK BAT

### Lehendakari hautaketa

Biyak Bat elkarteak jakin arazten du elkartearen Estatutuek diotenaren arabera, ez ohiko Batzar orokorra deituko duela. Gai nagusia lehendakari berriaren hautua izango da. Era berean, zuzendaritza taldeko kide kopurua eztabaidatu eta urteetan lanean egon diren lehendakariorde, diruzain eta batzordekideen ordezkariak ere aukeratu behar dira.

Hau dela eta, laguntzeko prest dauden bazkideei eskatzen zaiei zuzendaritza talderako hautagaitzak aurkezteko. Kandidatura hauek elkarteko egoitzean aurkeztu behar dira irailaren 4a baino lehen.

Elkarteko zuzendaritza kideek aipatu digutenez, epea amaitu ondoren ez ohiko Batzar orokorraren data eta ordua jakin araziko dute.

## ATERPEA

### Herriko komertzioa bultzatzeko

Aterpea Merkataritza elkarteak uztaileko lehen hamabostaldian "Bila itzazu ferrak Aterpea elkarteko dendetan" kanpaina jarri zuen abian. Hori dela eta, ostiral arratsaldean elkarteko dendetan erosteko 100 eurotako 10 txartel banatu zituzten. Kanpaina parte hartu duten 613 boletxo asmatzaileren artean (guztira 807 izan dira) zozketa egin zen Okendo plazan eta saridunak P. Tejado, H. Encinas, A. Arruti, M. Benjinea, I. Otaegi, M. Polo, E. Caro, A. Sagastibeltza, J. Carretero, L. Garcia izan dira. Aritza mertzerian jaso ditzakete sariak.



## Lasarte-Oriako kultura sustatzen

Lasarte-Oriako Udalak 2013. urteko kultura arloko hitzarmenak sinatu zituen asteazkenean. Lasarte-Oria aldiria, Alboka abesbatza, Erketz EDT, Kukuka antzerki eta dantza eskola, Zero Sette akordeo orkestra, Semblante Andaluz elkarteekin elkarlana egingo du Udalak herriko kultura sustatzeko asmoz.

Sinatze ekitaldian Boris Nogales Kultura batzordeko burua, Nerea Sanchez alkateordea, Lasarte-Oria aldiria, Alboka abesbatza, Zero Sette akordeo orkestra eta Semblante Andaluz elkarteko ordezkariak izan ziren. Erketz EDT eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak ere izan ziren ekitaldian egon.



Boris Nogales Kultura batzorde buruak hitzarmen hauetan 20.000 euro banatu direla jakitera eman zuen.

Alboka Abesbatzaren 25. urteurrena eta Erketz EDT-k antolatzen duen Dantzari txiki eguneko 25. urteurrena direla eta laguntza bereziak eman direla ere aipatu. Era

berean, talde bakoitzak eskaini beharreko ekitaldi kopurua azaldu zituen labur.

Nerea Sanchez alkateordeak "eskerrak eman nahi dizkiegu elkarte hauei gure herriko kulturaren motorra direlako". Herriko taldeen ekintzak ahal moduan laguntzeko prest daudela esan zuen.

# Musika eta antzerkia kalera

■ Herriko kaleetan musika eta antzerki ikuskizunak izan dira aste osoan zehar

**Herritarrek gustora hartu dituzte udaleko Kultura sailak antolatutako kale ekintzak. Antzerki, kontzertu eta zinema emanaldietara asko izan dira eguraldiak lagunduta, gerturatutako herritarrek.**

Uda eta bereziki beroa eta eguzkia gogoz hartu dira eta hauekin batera kalean egoteko gogo. Hau izango da arrazoi nagusia baina udaleko kultura sailak antolatutako ekintzek harrera ona izan dute asteburu honetan ere.

Astean zehar ZooZoom haurrentzako antzerki alai eta berezia ikusteko aukera egon zen Isla plazan Markeliñe taldearen eskutik. Eguzkiak tarteak gogor jotzen bazuen ere, oso ondo pasa zuten bertan bildu ziren hurrek, ikusleeta-ko asko Udako Txokoetakoak izan ziren, beraien begiraleez lagunduta.

Ostegunean berriz, zinemari tartea egin zitzaion Okendo plazan. Bigarren saio honetan Okendo zinema taldeak gomendatutako "El caballero oscuro: la leyenda renace" filmaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Batzuek etxetik jaitzi zituzten aulkiak erosoago egoteko.

Azkenik, musikak tartetxoak eduki zuen Sagardotegi Plazan, NOS taldearen eskutik (New Orleans Sound). Talde honek baxu, tronpeta eta bateria doinuak eskaini zizkien herritarrei Udala eta Xpressionk!-ek elkarlanean antolatutako Kultur Kale Zikloa ekimenean. Hurrengo astean The Cotton-tails taldeak joko du larunbat iluntzean, Okendon.



Tronpeta protagonista nagusitzat hartuta, New Orleans estiloa eskaini zuen NOS taldeak, larunbat arratsaldea girotzeko.



Udako zinema Okendo plazan egin zen ostegunean.



ZooZoom antzerkia Isla plazan egin zen txokoetako haurren gozameneko.



Neska-mutilak taldeka igo ziren oholtzara ostiral eguerdian euskal mitologiako pertsonaietaz mozarrotuta dantza egiteko.

## Dantza jaialdi koloretsu eta ikusgarria udako txokoetan

Udako Txokoetan dabilzan hurrek ederki pasa zuten ostiral eguerdian Euskal Mitologiako pertsonaiei eskainitako jaialdian.

Taldeka, iratxo, sorgin, galtzagorri, basajaun, herensuge, tartalo, azti, lamia eta euskal mitologiako beste pertsonaie-taz mozarrotu ziren ostiral goizean begiraleen laguntzarekin eta eguerdian kultur etxean dantzatu zuten adiskide, guraso eta aiton-amonen

aurrean. Kultur etxea goi eta behe bete zen herriko haurren dantza saioak ikusteko.

Ikusgarria eta koloretsua izan zen emanaldia. Taldeka igo ziren oholtzara, eta mitologiako pertsonaien kolorea hartu zuten bakoitzak, galtzagorrien gorria, herensugeen berdea, lamien zuria edo basajaunen marroixka, besteak beste. Erre-kamarik egin zuen "baso ezkutit" iritsitako pertsonaien" dantza saioen aurkezpena.

**ANORGA TXIBI S.L**  
  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...  
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
 943 37 17 33- 610 45 93 45

**ADURIZ DE LASARTE S.A**  
 Solomoa baratxuritan Odolkia- Solomo ontzutua  
 Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak  
 Txistorra Basurde burua  
 Baserri pateak  
  
**BERTAKO FABRIKAZIOA**  
 Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

# Karmengo Amaren ospakizuna Orian

Giro bikaina izan zen asteartean

**Astearte eguerdian Karmengo Ama zaindariaren Eguna ospatu zuten Oria auzoan. Goizean goizetik aritu ziren Solano Musika Eskolako soinu eta panderojoleak giroa alaitzen. Eguerdiko 12etan eman zen meza eta ondoren hamaiketako egin zuten bildutakoek. Une bereziak izan ziren mezan esaterako Pilar Catalina sopranoak, Amaia Dorronsoro organojolearen laguntzarekin, "Salve"-a kantatu zuenean edo Villabonako Oinkari taldeko hiru neskatilek Agurra dantzatu zutenean.**

Oria auzoan Karmengo Amaren eguna ospatu zuten uztailren 16an urtero bezala. Giro bikaina izan zen meza ondorengo hamaiketakoan Plazido Mugika plazan. Hainbat pintxo prestatu zituzten Biyak Bat elkarteko zenbait emakumek, besteak beste, urdaiazpiko-meloi, enpanada, atun, arrautza, txorixo... eta baita "makilxo" goxoak ere.

Musika eta dantzak ederrago egin zuten Juan Luis Murua, Xabier Andonegi eta Ramon Uribeberria herriko apaizek eguerdian emandako meza nagusia. Villabonako Oinkari taldeko dantzariak Agurra dantzatu zuten eta Pilar Catalina sopranoak kantatu zuen hurrenez hurren Kristina Solano soi-

nujoleak eta Amaia Dorronsoro organojoleak lagunduta.

Mezan urtean zehar hildako auzotarrak gogoratu zituzten eta aipamen berezia egin zitzaion hil berria den Mertxe Galdos Biyak Bat zaharren etxeko lehendakariari.



Asteartean goizean goizetik soinu eta panderojoleak alaitu zuten giroa Oria auzoko Karmengo Amaren kapera inguruan.



Mezaren ondoren pintxoak jan zituzten Oria-ra hurbildutakoek.

## Zubietako errauste planta eten du GHK-k

GHK Gipuzkoako Hondakin Kudeaketak errauste plantaren obrak eten zituen baimena jaso zuen jatorrizko proiektuaren eta "lizitatuaren" arteko desberdintasunak argudiatuz.

Kutsaduraren prebentziarako legearen 10.5 artikulua du oinarrian GHK-k errauste plantaren obrak gelditzeko erabakiak. Honen arabera, Eusko Jaurlaritzak eta obren promotoreak eskumena izango lukete obrak eteteke, hauen garapenean funtsezko aldaketak sumatzekotan. GHK-k dio ez duela "sekula"

esan jatorrizko proiektuak baimenik ez duenik: "lizitaziora ateratakoa ez dela baimena jaso zuen proiektu berbera diogu eta bien artean dauden aldeak nabariak direla".

Aurreko GHKren kudeatzaileek izan behar zuten gobernuari aldaketa horien berri emateko arduradunak eta ez zutela egin dio GHK-k. Hau dela eta normalizat jotzen dute gobernuak ez izatea horien berri, "GHK-ko kudeatzaile berriak jakinarazi zion arte". GHK-ren arabera, hau dio ingurumen baimen bateratuak: "Azpiegituretan



Errauste plantaren kokalekuaren inguruak, atzean Lasarte-Oria ikusten dela.

aldaketak lotuko zaizkio 16/2006 legearen 10.3 artikuluan komunikazioari buruz diogenari, beste baimen bat emanez aldaketak handiak

diren kasuetan". Baimen horiek zehazten ditu jatorrizko proiektuaren puntuak; hondakinen tratamendua eremuaren barruan egongo diren

lau eraikinetan egingo dela eta eraikinak zertarako izango diren zehaztuz. "Horietako batean daude aldaketak, hain zuzen zepak eta eskoriak tratatzeko plantan, erregulazioaren zain dago. Proiektuari funtsezko aldaketak egin zaizkio eta, ondorioz, ingurumen baimen berria eskatu beharko litzateke". Hau tarteko, "legearen mugetatik at" zegoen proiektu bat betearazi nahi zutela baieztatu du GHK-k, beraz, errauste plantaren obrak bertan behera uzteko argudioak "zilegiak" direla defendatzen dute.



**Pizzeria Bar Jaletxea**  
**Rummy**

**Eguneko menua**  
Pizak  
Hanburgesak  
Pintxoak

**Astebukaerako MENUAK**  
**erakargarriak prezio onean**

**Taldeentzako menuak**

**Kale Nagusia 71**  
**20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 245565**



## REFORMAS

**Javier Lasa**  
**Tfnoa 688618596**  
**xabilasa@euskaltel.net**

**Konpromezurik gabeko aurrekontuak**  
**Konponketak** Presupuestos sin compromiso  
**Bainontzi aldatzea** Pequeñas Reparaciones  
**Sukaldeak** Sustitución de Bañeras  
**Komunak** Cocinas Baños

## IGERIKETA.-

## Igerilariak primeran Euskal Herriko txapelketan

Nahia Jie Villamediana eta Itsaso Tolosa Espainiako txapelketetan izan dira lehia

**Aurreko asteetan Buruntzaldea IKT-ko lagunek igerileku eta itsasoan izan zituzten lehiaketak. Batetik infantil, junior, promesa eta absolutuko Euskal Herriko txapelketetan izan ziren, Nahia Jie Villamediana eta Itsaso Tolosa Espainiako txapelketan izan dira eta azkenik Ondarroako itsas lasterketa proban lehiatu ziren masterrak.**

## TXINTXARRI

**B**uruntzaldea IKT-ko infantil, junior, promesa eta absolutu mailako igerilariak uztailaren 6an eta 7an, Tolosa eta Gasteizen ospatu ziren Euskal Herriko Udarako Txapelketetan izan ziren parte hartzen. Emaitza bikainak lortu zituzten taldeko igerilariak, 2 urre, 7 zilar, 2 brontze, 17 marka pertsonal berri eta infantil mailako Espainiako txapelketarako gutxieneko bat.

Gasteizen junior, promesa eta absolutu mailako igerilariak gain, Iñigo Ibarburu infantila izan zen lehia.

Itsaso Tolosak lau domina eskuratu zituen bizkar probetan, hiru zilarrezko eta brontzezko bat.

50 m. bizkar proban junior mailako txapeldunorde izan zen; 200 m. bizkar proban ere bigarren izan zen, bai maila absolutuan, baita bere mailan ere eta 100 m. bizkar proban brontze lortu zuen.

Haitz Mitxelena ere podiumean izan zen baina kasu

hoentan tximeleta probetan. 100 m. tximeletako promesa mailan txapeldunorde izan zen eta 200 m. tximeletan "sekulako proba" egin eta zilarrezko domina eskuratu zuen.

Bi proba hauetan eta 50 m. tximeleta proban bere marka pertsonalak jaitsi zituen Buruntzaldea IKT-ko igerilariak.

Iñigo Ibarburu infantilak, berriz, 100 m tximeleta proban txapeldunorde izan zen absolutu mailan. "Bere aurretik Markel Alberdi mundialista baino ez zen izan," azaldu digu Borja Apeztegia entrenatzaileak.

200 m. eta 400 m. libre probetan, berriz, bere marka pertsonalak hautsi zituen 2 eta 3 segundutako hobekuntza lortuz.

Azkenik, nahiz eta dominarik ez eskuratu, Mikel Esnalek 50 m. libre proban bere marka hautsi zuen eta 100 m. libre proban bere marka onena berdindu zuen.

**Infantilak**

Buruntzalde IKT-ko gainon-



Buruntzaldea IKT-ko igerilariak Euskal Herriko txapelketako dominekin.

tzeko infantilak Tolosan izan ziren borrokan eta hauek ere ez zuten hutsik egin.

Naiara Lizaso 50 m. libre proban txapeldunorde izan zen. "Inoiz baino luzeago eta txukunago igeri egin zuen," azaldu digu Borja Apeztegiak. Proba honetan lortutako markak Espainiako txapelketan egoteko txartela eman dio.

Era berean, 100 m. eta 200 m. libre probetan txapeldunorde izan zen. Azken proban honetan gainera marka pertsonala egin zuen.

Ainara Garcia, berriz, 50 m. bular proban marka "ederra" egin eta zilarrezko domina eskuratu zuen. 100 m. eta 200 m. bular probetan ere

ederki ibili zen eta bere marka pertsonalak hobetu zituen.

Mikel Sotok ere "marka bikaina" egin zuen 50 m. bular proban, baita domina ere, brontzezkoa. Eta Ainaren antzera 100 m. eta 200 m. bular probetan marka pertsonal berriak lortu zituen.

Eta Janire Berasartek ere 100 m. libre proban marka pertsonala egin zuen.

Era honetara, "emaitza politak lortuz amaitu dute igerilari gehienek denboraldia. Orain ondo merezitako oporraldia izango dute gehienek eta beste batzuek Espainiako Txapelketa lehiatu beharko dute" azaldu digu Apeztegiak.

**Espainiako txapelketak**

Eta horiek izan dira Nahia Jie Villamediana eta Itsaso Tolosa.

Tolosa Valentzian ostiraletik larunbatera burutu zen junior mailako lehiaketan izan zen, 100 m. eta 200 m. bizkar probetan..

100 m. bizkar proban, bere marka hobereenetik urrun izan zen eta ez zuen finalerako txartela lortu hernaniarrak, azkenean 17. egin zuen.

200m. bizkar frogan aldiz, arantzatxoa atera eta finalerako sailkatzea lortu zuen, 10. postua eskuratuz.

Nahia Jie alebin mailako txapelketan parte hartu zuen Manresan, uztailaren 12 eta 14a bitartean.

50 m. igerilekuan bere lehen esperientzia izan zen eta Toloasren antzera, bizkar probetan lehiatu zen eta bere markak hobetu zituen. "Esperientzia polita bizitzeko eta bertatik asko ikasteko aukera izan zuen," aipatu digu Borja Apeztegiak.

**Itsas lasterketa**

Bestalde, Buruntzaldea IKT-ko masterrak Ondarroan izan ziren bertako itsas lasterketan.

Jose Luis Sevillano mugikortasun mugadun-eko mailan txapeldunorde izan zen, gizonzkoen veterano mailan Juan Vicente Martin hirugarren sailkatu zen eta master kategorian, Yoli Pastor laugarren izan zen.

## ATLETISMOA / MENDI LASTERKETAK.-

## Lasarteoriarrak ederki G2H proban

**E**rromka ederra izan zuten Lasarte-Oriako bost kirolarik lehengo asteburuan, ehunmilak eta G2Handiak. Parte hartzaileek 168 km. eta 88 km-tako ibilbideak egin zituzten, hurrenez hurren eta Aralar eta Aizkorriko parke naturalakotako mendiak igo.

Peio Fadrique herritarra izan zen Ehunmilak proban atera zen bakarra. Jakin arazi digutenez, arazo fisikoengatik 81 kilometroan lasterketa utzi behar izan zuen.

G2Handiak proban, aldiz, herritar guztiak iritsi ziren helmugara: Oroitz Arregi, 17:53:22; Jose Ramon Mendizabal, 18:27:44; Juan Mari Marcos, 18:27:48 eta Javier Olazagoitia, 18:31:03.

**Euskadiko txapelketa**

Bestalde, LOKEko Jon Altuna eta Gaizka Ormazabal uztailaren 13an Durangon, Euskadiko txapelketan lehiatu ziren denboraldiari amaiera emanaz.

Jon Altunak 800 metroetan 4. postua eskuratu zuen. Gaizka Ormazabal berriz

200m metroetako finalerdian kaleratua izan zen.

**Espainiako txapelketa**

Hauetaz gain, veteranoen mailako Espainiako txapelketa izan zen Gasteizen. Bertan Santos Uribe herritarrek 50 km. marxa proban parte hartu zuen.

## LABURRAK.-

**Zaldi lasterketa denboraldia hasi da**

Uztailaren 7an hasi zen zaldi lasterketa denboraldia Donostia-ko hipodromoan. Beste urte batez, herriko zaldien zaletuek hitzordu berezia dute.

Aurtengoan 12 jardunadi izango dira, dagoeneko hiru burutu dira eta igande eta astelehenetan izango da lasterketak ikus-teko aukera. Uztailak 29, abuztuak 4, 12, 18 eta 26 eta irailak 1, 8 eta 13an, azken hau ostirala, izango dira hurrengo lasterketa egunak eta ohitura legez, abuztuaren 15ean, osteguna, Urrezko kopa lasterketa izango da.

Berrikuntza bezala bost lasterketa izango dira saioa bakoitzeko eta Fegrenti federazioko emakumezko zaldizko lasterketa ospatuko dute irailaren 1ean. Fegrenti emakumezko nahiz gizonzko zaldun zaletuen nazioarteko federazioa da eta ondorioz, Europako emakumezko zaldizko onenak elkartuko dira egun honetan.

**Buruntzazpi Gipuzkoako erlojupekoan**

Buruntzazpi txirindularitza eskolako gazteek lehengo asteburuan, uztailaren 13an, proba garrantzitsua izan zuten Alegian, talde mailako Gipuzkoako erlojupeko txapelketa.

Bi maila desberdinetan izan zen lehia junior eta kadete mailan eta bietan egon zen Buruntzazpi eskola ordezkatua.

Junior mailako taldea 7. postuan amaitu zuen erlojupekoa eta kadeteak berriz, 9. postuan.

## Agenda

Ostirala 26, egun osoa



### Santa Ana eta San Joakini ohore

Ohiturari jarraikiz, Lasarte-Oriako herriak Santa Ana eguna ospatuko du. Goizean, Ama Brigitarren komentuan Saindaren ohorezko meza ospatuko da eta Erketz EDT-ko lagunek karkaban agurra dantzatuko dute. Arratsaldean, pala txapelketa-ko finala izango da Loidi-Barreneko pilotalekuan eta gauean, Santa Ana eguneko parodia. Urte honetan zehar herrian gertatutakoak berrikusteko aukera izango da. Umorea izango da nagusi, noski.

**AMA BRIGITARREN KOMENTUA**  
11:00etan, meza.  
Ondoren, hamaiketakoa.

**SANTA ANA KARKABA**  
12:00etan, agurra Erketz EDT-ren eskutik.

**LOIDI-BARRENEKO PILOTALEKUA**  
SANTA ANA PALA TXAPELKETA  
17:30ean, 3. eta 4. postua:  
Odriozola eta Martin- Xenki eta Asier  
18:30ean, Finala:  
Begiristain anaiak- Arteaga eta Esnaola

**KALEETATIK ZEHAR**  
21:30ean, desfilea Buruntz-Azpi elkartetik Okendora

**KALEETATIK ZEHAR**  
22:30ean, Santa Ana eguneko parodia gozatzeko aukera.

## Lasarte-Oria

### Musika

**ZULO ARETOA**

Ostirala 26, 00:00etan

Dj Randyk hip hop eta reggae doinuak eskainiko ditu.

Larunbata 27, 00:00etan

Rock doinuak nagusi izango dira Olarius&Brothers DJ-en saioan.

**OKENDO PLAZAN**

Larunbata 27, 19:30ean

Swing eta jazz doinuak ekarriko ditu The Cottontails taldeak herriko erdigunera.



**JALGI KAFE ANTZOKIAN**

Uztailak 18tik 31era

Shandra Perez Lucero herritarren "Nire azken obra" margo erakusketaz gozatzeko aukera.

### Tailerra

**ISLA PLAZA**

Larunbata 27, 10:00etatik 13:00etara

8 eta 14 urte arteko gaztetxoek haien

arropa tuneatzen edo apaintzen ikasi-ko dute.

## Zubieta

### Santio jaiak

**Asteazkena 24-Asteazkena 31**

Zubietarrek Santio jaiak ospatuko dituzte. Adin guztietako ekintza eta kontzertuez betetako astea.

## Herritarren txokoa

### Herriraren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, uztailaren 26an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

### Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan uztailaren 29an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitezte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

### Galdutako arropa

Sorgin Dantzako entsegutan Landaberri BHI-n jendeak ahaztutako hainbat arropa jaso da. Guztia Ttakuneko bulegoan dago beraz galdu dutenek harrera orduan pasa daitezke hauek jasotzera.

### Kiroldegiko eta bulegoko Udako ordutegia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, uztailaren 1etik aurrera udako ordutegia izango dela indarrean bere kirol-instalazio eta bulegoan.

Kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita egongo da.

Kirol Gunea, berriz, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 21:00etara irekiko ditu ateak, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita dago.

Bulegoko ordutegia ere aldatu da. Astelehenetik ostiralera, goizez, 9:00etatik 12:30etara bakarrik egongo da irekia. Asteburuetan itxia egongo da.

### Islada Ezkutatuak taldeak testigantzak behar ditu

Maiatzaren 22an 75 urte bete ziren Ezkaba mendian, Iruña inguruan dagoen San Cristobal fuertetik 800 presoren ihesaldia gertatu zela.

Islada Ezkutatuak taldea jakinaren gainean dago presondegi horretan lasarteoriatar bat baino gehiagok jasan behar izan zuela hango bizimodu latza.

Oroimenaren alde lan egiten ari den taldeak dei egiten die presondegi horretan egon ziren senitarteko edo ezagunen bat duten herritarrei haiekin harremanetan jar daitezten. Asmoa kasuak ezagutu eta zerrenda bat osatzea da. Lasarte-Orian denboraldi bat biziak edo eskualdean biziak pertsonen testigantzak ere jasoko dituzte.

Honetarako 695 756 565 zenbakira deitu behar dute.

## Eskutitza

### BAI Plataformako zinegotzi nazionalistei

Zuen idazkiaren izenburutik bertatik (Monarkia nahiz Errepublikaren itzalean, bandera espainiarra inposatu egin nahi diguzue), eta jakinaren gainean, gezurra besterik ez duzue esaten.

Zeren argi baitago nik ez dizuedala bandera espainiarra inposatu egin nahi. Ez bandera espainiarra, ez eta beste inolako banderarik ere; ez zuei, ez eta beste inori ere.

Orain EBn ez banago ere, iragana aldatu ezinenez, beti izango naiz EBko zinegotzi ohia. Ala ez? Zertara dator ba zuen harridura?

Zentzugabekeria-neurgailua hondatu egin bide zaizue, eta arrazoitzeko aparatua ere.

Zenbaketotasuna eta nolakotasuna bereiztea ere kosta zaizue, bandera bat erakusteko zilegitasuna ez baitago horrekin identifikatzen direnen edo babesa ematen diotenen kopuruaren baitan. Beste kontu bat da, adierazpen askatasunarekin zerikusia duena.

Frankismoaren oinordeko den gaurko estatu monarkiko ustelaren bandera (gaurko legeriaren arabera derrigorrezkoa dena eta inposatu egin nahi digutena) eta askatasuna eta aurrerapen soziala ordezkatzen dituen (legez baztertua dagoena eta estatu mailan gero eta jende gehiagorentzat benetako erregimen

demokratikoaren errebindikazioa ordezkatzen duena) parekatzea ere!

Umiltasuna eta historia ikasteko gomendioa egiten didazue: beleak zozoari ipurbeltz.

Ezin utzi aintzat hartu gabe nola esaten duzen Herrien Europa aldarrikatzen lehenengoak euskal nazionalistak izan zinetela hogeigarren mendeko garai gogorrenetan. Egia da orduko euskal nazionalista batzuk horretan lehenetakoak izan zirela. Egia den bezala geroago euskal nazionalista bihurtu ziren asko, garai gogor haientan, beste batzuek frankismoa borrokatzen ari ziren bitartean, diru eginez bapo bizi zirela.

Bukatzeko, gauzatxo bat bakarrik: sozialismo errearen izenez deitutako erregimenetako buruzagiak aipatzeko eta ni haiekin lotzeko asmoz erabili duzuen leinu hitza ez da batere egokia. Edonola ere, sekula ez naiz estalinisten mireslea izan; beste inor (herri zein gizabanako) zanpatzen duen edozein ez da nire bandokoa.

Honenbestez, polemika hau bukatuztat ematen dut.

Ricardo Ortega, EBko zinegotzi ohia eta Erakibetako eskubidearen eta ezkerren batasunaren aldeko ERABAKI plataformako kidea.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Cesar Bozal labangileak aittoa eman zion Pedro Subijana sukaldari ezagunari.



Goizean batez ere herritarrak aurrera eta atzera ibili ziren Okendo eta Mercero plazetan, bero sapa handia egiten zuen arren.



Artisau zein elikadura produktuak ikusi ez ezik, erosi ere, zer edo zer erosi zuten.

## Eskulangintza, plazara

### XXIX. Santa Ana artisau azoka egin dute asteburuan

**Artisau eta elikagaien XXIX. azoka egin zen igandean Okendo eta inguruetan Santa Anako ospakizunen harira. Udaleko kultura, hezkuntza eta euskara sailak Sendoki Kultur Batzordearekin elkarlanean antolatutako festak pronostikoak hautsi zuten eta guztira 56 postu jarri zituzten inguruetako artisauak, horietatik hamar lasarteoriatarrek izan ziren.**

**G**oiz eta arratsalde, jendea joan-etorrian ibili zen postu guztietan zegoena ikusi eta erosi asmoz. Besteak beste bitxiak, eskulturak, abanikoak, koardroak eta denetarikoko artelanak ikus zitezkeen salgai, jakina, artisauak eurek mimoz azken hilabete hauetan maitasunez eginak.

Gainera, elikadura postu ezberdinetan jaki gozoak aurkeztu zituzten, hala nola, gaztak, marmeladak, goxokiak, lurringintzako produktuak... Herritarrek bazuten non aukatuetan beraz.

#### Bisitari garrantzitsuak

Aurreko urtean Robin Foodi egokitu zitzaion Cesar Bozal herriko labangileak egindako aittoa jasotzea eta aurtengoa Pedro Subijana sukaldari famatua izan da omendua.

Horretaz gain, Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburuak ere bisitatu zuen azoka. Udal ordezkariak eta Sendokiko kideek harrera egin ostean, postuz postu ibili ziren Euskal Herri osotik etorritako eskulangileen lanak ikusi eta interes handiz galderak eginaz.

Ramon Ormazabal eta Antton Salsamendi Sendoki Kultur Batzordeko kideek gidatutako irekiera zeremonian eskerrak eman nahi izan zizkieten artisauari, zinegotzietan, alkateari eta bisitariari, XXIX. eskulangintza azokan laguntzeagatik.

Subijanak gogorarazi nahi izan zuen artisautza tamalez pixkanaka "galtzen" ari den artea dela, belaualdi berriak askotan ez baitaude prest tradizioarekin jarraitzeko eta halako ekimenak gehiagotan egin beharra daudela nabarmendu zuen.

Uriartek, bere aldetik, Sendokiri gonbidapena eskertu eta artisau azokak "beharrezkoak" direla esan zuen: "Garrantzitsuak dira itzalean egiten den lana erakusteko aukera ematen duelako, ikusten ez den hori azaleratzeko".



Akelarre jatetxeko Pedro Subijana artisauak hizketan, atzean Cristina Uriarte Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburua (berdez).



Haurrentzako tailerrak eta harlanduzko irudi ikusgarriak Okendon...